

Ezpalak

JON TORNER

Xabi Strubell Dut taldeko gitarrajotzaile izandakoa poesiak idazten hasi da *Euskal Poesia Blaga Bloga* blegean (<http://euskalpoesiabloga.blogspot.com>).

Txalo konpainiaren *Artea* obrak irabazi du VII. Donostia saria. Yasmina Rezaren *Art* obraren euskarazko egokitzapena da lan saritua. Julia Marinek euskaratu eta Karlos Zabalak zuzendu dute Ramon Agirre, Asier Hormaza eta Joseba Apaolaza aktoreek antzeztutako obra hori. Txalo Produktzioak taldeak martxoaren 27an jasoko du saria, Victoria Eugenia egingo den galan.



Pedro Iturralde saxofoi jotzaile nafarrak Espainiako Musikaren Akademiaren Bizitza Osoari emandako saria jasoko du. Martxoaren 29an, XI. Musikaren Sariak emango diren egunean jasoko du Iturraldek saria, "Espainiako jazzaren aitzindari" izateagatik.

Unai Agirre hernaniarrak irabazi du Orixe bertso txapelketa. Bi puntu eta erdi ateratzizkion Iker Zubeldiari. Amassorrain ikastolak ematen duen bertso onenaren saria ere Agirrek eskuratu zuen.

Carmen Andonegi eta Susana Elias Gonzalez donostiarrek eta Elena Uranga bilbotarrak Donostiako Kutxa Boulevard aretoetan jarri dituzte ikusgai euren margolanak. Erakusketak hilaren 25a arte izango dira zabalik. Gaienean duzuen obra hori Elena Urangak egin du. *Gauak izar bakararen antzera* du izena.



Katixa Agirre gasteiztarrek bere lehen liburua kaleratu du Elkar argitaletxearekin. *Sua falta zaigu* izeneko liburua pertsonen arteko harremanak jorratzen dituzten zazpi narrazio laburrez osatu du.

Zhuyi!, Txinako argazkigintzari begirada

Gasteziko Artium museoko Ipar artean 1960tik aurrera jaiotako 35 argazkilaritxinarren 140 irudi jarri dituzte ikusgai, *Zhuyi! (Erne!)* izenburupean. Irailaren 23a arte bisitatu ahal izango den erakusketa eder horrek Txinak azken hamarkadetan izan duen bilakaera islatu du, Debekatutako Hiria, Harresi Handia eta Tiananmengoenparantza bezalako lekue-tan hasiko den bidaian



zehar. Horixe da erakusketa osatzen duten bost ataletan aurrenekoa: antzinako historia. Gainerako atalak Txinan gaur egun gertatzen ari diren aldaketan zuzeneko lekuko bilakatu dira. Era guztietako sentipenak biltzen dituen norbanakoaren aldaketan metaforak dira argazkiak; gizartearen sukar kontsumista gero eta handiagoak eragindako hutsunetik hasi eta herrialde erraldoi hartako kultur ohituren aipamenetan islatzen den malenkoniarraino.

Jon Iruretagoienak *Xirika* aldizkarian, Ipar Euskal Herriko dantza taldeen egoeraz: «Udako erakustaldiek garrantzi handia dute, dantza taldeak biziarazteko dirua ekartzen baitute. Oso penagarria dena da, dantzari batzuek, udan bakarrik dantzatzeko dutela, betiko erakusgarrian. Aitzinapauso bat egin behar dugu, dantzariak, urtean zehar, espresatzeko lekua izan dezan, sorkuntzak plantan emateko eta dantza desberdinak erakusteko ere bai».

Garikoitz Mendizabal txistulariak *Nabarra* aldizkarian: «Txistuaren instituzionalizazioa gertatu da, are gehiago txistulari gehienak kontserbatorioetatik irten garenean eta plazak lortzeko posibilitatea egon denean. Modu horretan sosak ziurtatuta dituzu, gehiago edo gutxiago egin eta horrek lasaitzera eramaten zaitu. Hobetu, aldatu eta beste batzuekin elkarlanean aritzeko grina hori sumatu ahal izan da beste instrumentu batzuetan, hein batean, soilik kontzertuetatik eta bizi izan direlako, eta txistulariek ez dugu hori egin».

Unax Ugaldek *Gaur8* infon: «Paparazzien kontua hor dago, baina interesatuek eurek deitzen dietelako egoten dira etxe aurrean zain, eurek sortzen dute tentsio hori. Gaur egun hedabideetan jende asko dago ezertaz hitz eginen ez duena, euren narzismoak bultzatuta. Aldiz, zuk nahi ez baduzu, errespetatzen zaituzte (...) Filmen estreinaldietara edo festa batera joaten naiz lagun bat proiektu horretan badago eta gonbidatzen banau. Baina badaude gauero festarik festa ibiltzen direnak, lana hor lortuko dutela pentsatuz, eta ez da horrela; proiektuak egunez ateratzen dira aurrera».

Karlos Linazasorok *Berrian*: «Argi dago ez naizela komunikatzaile ona. Poemak irakurtzen ez naiz ia inoiz aritu. Ez naiz horretarako gai. Philip Larkinek esaten zuen poesia ez dela erre-zitatze, irakurtzeko baizik. Errezitatzerakoan, entzuleak ez baitu laurdenik ere harapatzen. Abestiaren bidez emateko balio du poesiak, baina poesiak erre-zitatzen entzuten jendea asko aspertzeko da».

Bilbora hedatuko da AnimaBasauri jaialdiaren 3. edizioa

MARTXOAREN 23TIK 29ra egingo da AnimaBasauri Basauriko Nazioarteko Animazio Zinemaldia, Basauriko Social antzokian. Hirugarren edizio honetan, Bilbora hedatuko da jaialdia. Hala, Bizkaiko hiriburu-ko Renoir Deusto eta Bilbondo zinema aretoetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean ere eskainiko dituzte emanaldiak. Aurten 20 herrialde-tako filmek osatuko dute egitaraua. Ohi bezala, 35 milimetroko euskarriko film laburren eta iraupen luzeko filmen lehiaketak antolatuta dituzte. Horrez gain, Bill Plymton estatubatuararen eta Jan Svankmajer txekiarraren atzera begirakoak eskainiko dituzte. Halaber, haurrentzako egitarau berezia prestatu dute. Eurei eskainitako filmak proiektatzeaz gain, beste hainbat ekimen izango da: erakusketak, taile-rrak... Informazio gehiago: www.animabasauri.com.

Kubako antzerkia protagonista “Kuba bai” kanpainaren baitan

CUBA VA, KUBA BAI kanpainaren barruan, El Club de los Poetas Rojos eta Los Traiteros de La Habana antzerki taldeek obra bana eskainiko dute Gasteizko Jesus Ibañez de Matauko antzokian hila-ren 23an eta Bilboko Haceria Arteak aretoan hurrengo egunean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Lehenengoek “injustiziaz, askatasun ezaz eta zapalkuntzaz” hitz egiten duen *Preposiciones y proposiciones* obra taularatuko dute; bigarrenengoek, *La Guerra*, Oscar Castrok idatzitako lanaren egokitzapena. Antzerki emanaldiak Euskadi-Kuba elkarteak antolatu ditu.

Bazka, literatur aldizkari elektroniko berria. *Bazka* literatur aldizkari elektroniko sortu berriak (www.bazka.info) Euskadi Sarien inguruko hainbat artikulua jaso ditu. *Itsasoa ontzian* atalean Oier Guillan, Jose Luis Otamendi eta Joseba Tobar-Arbulu idazleak *Utikan Euskadi Sariak* manifestua sinatzera bultzatu dituzten arrazoiez mintzo dira euren iritzi artikuluetan. Bestetik, *Datutegia* sailean sarion inguruko hainbat datu kontsulta daitezke. *Bazka* aldizkariaren zuzendaria Gorka Arrese da eta kontseilu editoriala Xabier Bordak, Oier Guillanek, Koldo Izagirrek eta Josu Landak osatzen dute.



Apirilaren 2tik 14ra **Itsas + Mendi Barnetegia**

Bakaiku (Nafarroa) eta Arrigorri (Ondarroan)
Osakidetza 1go, 2. eta 3.a
Habe 1go eta 2.a
EGA
Mintzamina
Prezioa: 470€ mantenu osoa + klaseak

Apirilaren 4tik 9ra **Familientzako egonaldi bereziak**

Bakaiku (Nafarroa)
Prezioa: 150€ pertsonako egonaldia + mantenu osoa
120€ Zenbat Gara elkarte lagunak
(haurak prezio berezia)

Aste bateko Barnetegiak

Apirilaren 2tik 8ra Bakaiku (Nafarroa)
Apirilaren 10etik 15era Arrigorri (Ondarroan)
Apirilaren 10etik 15era Bilbon
Osakidetza 1go, 2. eta 3.a
Habe 1go eta 2.a
EGA
Mintzamina
Prezioa: Bilbon 170€ / Zenbat Gara elk. lagunak 150€
Bakalkun edo Ondarroan 235€
mantenu osoa + klaseak / ZG lagunak 215€

Gabriel Aresti euskaltegia*
San Bizente 2 - 4. solairua 48001 - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegos@gabrielaresti.com

Elkarlan
euskaltegiak

www.gabrielaresti.com

2007ko martxoaren 25a

ARGIA

37